

## FUNTSEZKO ELKARTEAK

DesfibriMAX enpresak, desfibrigailuak saltzen edo produzitzen dituen enpresa batekin ituna egitea izango litzateke aproposena. Ituna, enpresa horrek gu desfibrilagailuekin hornitzea, horrela gure zerbitzuarekin batera saltzeko, edo desfibrilagailua saltzean gure zerbitzua eskaintzean oinarrituko litzateke. Horretaz gain, gure mantenua aurrera eramateko beharrezko piezak ere enpresa honen bidez lortuko genituzke. Horrela, bien artean eskaintzen ditugun zerbitzuak bata bestearen osagarri izango dira.

Publizitatea egiterako orduan, gure webgunean gure eskaintza nagusituko da, hau da, mantenuari eta formakuntzari buruzko informazioa egongo da. Baina horretaz gain, gure enpresa aliatuaren informazioa ere jarriko dugu honek berari onurak ekarriko dizkiolako, guri moduan.